

# Marmari

5. alea / 2002ko ekaina

Leizako  
aldizkari  
gaztea


- Musika eta parranda Leitzan
- Elkarrizketa
- Kirola
- Denborapasak...

TODO POR LA PATRIE

# Maxurrenea kultur-etxea ala kuartel-etxea?



## ale honetan:



3. or. Editoriala.

4. or. Sexua ikuiluan.  
Animalien beroaldiak

5. or. Iragarkiak.  
Harremanak, salerosketak...

6-7. or. Elkarrizketa.  
Fran Hernandezena

8. or. Hizkuntzarekin  
jostatzen.

9. or. Ezetz asmatu.

10-13. or. Mahaingurua.  
Musika eta parranda Leitzan

14-17. or. Maxurrenea.  
Kultur-etxea ala Kuartel-etxea?

18-19. or. Toki kuttunak.  
Leitzarren gustoko txokoak

20-21. or. Kirola Leitzan.

22-23. or. Pobreziaz eta  
aberastasunaren banaketaz.

24-25. or. Ba al zenekiten?  
Leitzako toki izenak

26. or. Leitzarren euskarazko  
irakurzaletasunak.

27. or. Letra zopa eta Eroskoppa.

# Bostgarrena bero-bero

**m**armariren lau aldizkari iada kalean dira eta oraingoa berriz bostgarrena. Zenbaki polita alajaina! Udara iritsi da eta udarekin batera horrek dakartzan berotasunak ere denon artean nabarian utzi dizkigu. Marmariren bostgarren ale hau horregatik, frexko-frexko datorkigu berotasun horiek apaldu nahian nonbait.

Hasierako alean geneukan ilusio hori neguan zerbait apaldu bazen ere, San Juan su eta udako giro ederrarekin batera berpiztu ditugu gure indarrak. Hilabete zenbait igaro dira aldizkari hau egin ahal izateko baina beti gertatu ohi den moduan azkeneko momentuko urduritasun eta presak izan dira fruitu gehien eman dutenak.

Azterketak bukatu dira eta horrekin batera azterketek ematen duten urduritasun kutsakor hori ere aldentu da, udako oporrak hasi besterik ez... zer gehiago eska genezake? Hori bai, udara ongi hasi ahal izateko hemen duzue Leitzako aldizkaririk hoberena irakurtzeko aukera, zer gehiago behar dugu?

Aurrekoetan bezalaxe, oraingoan ere

zenbait gai jorratu ditugu. Elkarrizketa bat Leitzako sukaldari gazte bati; denok dakigun bezala udara iristearekin batera (negua hotzagoa denez), berotasunak eta tabernetako musikak denok mugiarazten gaituzte eta hori kontuan izanik, Leitzako tabernetako musikaren inguruan mahai-inguru bat ere egin dugu; kirolak Leitzan duen garrantzia erreparaturaz, horren inguruan ere erreportai bat irakurri ahal izango duzue; eta . . . nola? Gehiago oraindik? Ez pentsa orain aldizkari honen barrunbe guztiak kontatuko dizkizuegunik. Ez, ez. Aldizkaria lehenengo orrialdetik ireki eta irakurri besterik ez duzue.


Aurreko aldizkariaren antzera, herritarrengana hurbiltzen saiatu gara oraingotan ere eta gai desberdinak jorratu nahi izan ditugu horretarako. Gure helburua zuen artean interesa biztea izan da eta euskaraz idatziriko Leitzako aldizkaria izanik, zuen artean irakurzale-tasun hori oraindik gehiago bultzatzea.

Gustatu zaizuela, zerbait idaztea gustatuko litzaizukeela. Esku zaba-

lik gaude zuen proposamenak eta idatzia jasotzeko eta zenbat eta jende gehiagok parte hartu orduan eta bizitasun gehiago emango diogu aldizkariari eta azken finean hori da gure helburua, gustuko gauza batean jendea gustura murgiltzea.

Beraz, orain jaso duzuen Marmariren 5. ale hau gustukoa izan dezazuela eta udako gau epeletan taberna atarian eseririk, lagun arteko tertuliak osatzeko lagungarri izan dezazuela. Seigarren alean berriro elkartuko gara eta bidena-bar esan, zuen zain geratzen garela gu ere.

Hurrena arte!




# Animalien beroaldiak

**m** ARMARI aldizkarian behin baino gehiagotan hitz egin izan dugu sexu-harreman edo bikoteen arteko harremanez. Hori gauza normala da baina gizakion artean bakarrik gertatzen al dira horrelako «fenomenoak»?

Gustoko neska edo mutilen bat ikusiz gero denak jartzen gara bero-bero, sutan jartzen gara; baina oraingo

honetan ez dugu gizakion beroaldiez hitz egingo, animalien beroaldiez baizik. Gu bezalaxe, animaliek ere beraien beroaldi eta beharrak sentitzen dituzte eta hemen azalduko duguna hauxe izango da: animalia ezberdinak zerrendatuko ditugu eta bakoitzaren beroaldiari Leitzan nola deitzen diogun azaltzen saiatuko gara. Batzuk besteak baino eza-gunagoak izango zaizkigu baina hala ere denak dira bitxi eta bereziak.



Hona ba hemen, zuentzako prestatu dugun zerrendatxoak:

- **Zakurra:** ohara / uhara / otzala / alta / puzkarro.
- **Hatua:** ohara / katakara / otzala / katakea.
- **Ardia:** arkara / arker.
- **Ahuntza:** ahuntzkara / azkara / auzkea.
- **Behia:** susa / susara / susea.
- **Astoa:** ihel / igel / giri.
- **Behorra:** ihel / igel / giri
- **Oiloa:** loka (ollaloka) / koloka
- **Zerria:** iraus / eraus / ereus / ihaus

Hauetatik zenbat ezagutzen dituzue? Denak? Ezin dut sinistu baina tira, oraingoan behintzat ikasi izanen duzuela pentsatzen dut.

Ziur nago hala ere gure gurasoei galdetuz gero gehienak ezagutuko dituztela eta baita erabili ere. Honek erakusten digu gainera hizkuntza zein aberatsa den eta askotan aberastasun hori zein gutxi erabiltzen dugun, zenbait kasutan aberatsegia iruditzen zaigulako eta bestetan erabili nahi ez ditugulako soilik.



# HARREMANAK / SALEROSKETAK / DENETIK

Leitzako neska gazte pertxentak sexu-harremanak izan nahiko lituzke Leitzako mutil koadrilla jatorrarekin. **Bai, koadrilla osoarekin.** Asekaitza naiz, zer egingen diogu, ba?.



Leitzar zintzoa, gizonzkoa, gaztea. **Mutil gazte jatorra ezagutu nahi nuke,** elkarrekin bidaiatzeko, sexu-harremanak izateko eta traktorearekin nere terrenoak atontzen laguntzeko...

Leitzako krosean hiru giltza galdu nituen. Inter de Milan futbol taldearen giltzari batean lotuta zeuden. **Norbaitek aurkitu baditu, zakarrontzira bota ditzala.** Izan ere, kotxea lapurtu didate, etxea erre egin zait eta gainera Osasunbideako inspektoreak jatetxea itxi dit.

**Ximon: ez dizut inoiz barkatuko egin zenidana.** Gauza bat da nere lagunik onenarekin oheratzea, baina beste bat nere etxean, nere ohean eta nere gurasoak bertan zeudela egitea. Gutxienez latigoaren hotsarekin nere iloba esnatu ez bazenu. Eta zerriarena? ezin zenuten bildots arrunt batekin egin?


**Samantha:** Eguzkizko muinoaren inbidirik gabeko bularrak, Aritzeko haize-errotak baino luzeagoak eta sendagoak diren hankak, Guratzen forma borobilak lotsagarri uzten dituzten ipurmasailak, **Sarrioko kaldera baino hankarte beroagoa.** Plazaolako trenbidean aurkituko nauzu, tunel ilunetan, goseak amorratzen. ggrrrroooooaarr!!

**Ardiak jeizteko makina iraultzailea.** Ardiak jeizteaz gainera, errape nekatuetan masajea ere ematen die, artilea tintatzen du eta beste zenbait erabilera ditu, aukerakoak: esnari kafe zipriztinak botatzen dizkio . . .

Uztailean bidaiaria bat egiteko asmoa daukat: **Leitza, Oporto, Argelia, Jerusalem, Kazajastan, Mosku, Bucarest, Insbruk, Zurich, Piedramillera, Leitza.** Norbaitek ibilbide bera egiteko asmorik baldin badu, mesedez, dei dezala 948 510510510 telefonora.

Santiago de Chileko La Golondrina auzoko «**Mi barrio**» **aldizkariak,** 1912-1914 urteetan ataratako aleak salgai dauzkat oso prezio onean (alea 100 eurotan)

**6 hankadun zekorra** daukat. Norbaitek 2 hankaduna edukiz gero, deitu dezala eta tratu egiten saia gaitzke. Aliensenea baserria.





# Fran sukaldaria Hernandorena

**E**lkarriketa hau egiteko, mutil gazte bat aukeratu dugu, leitzarra, denek ezagutzeko modukoa eta horrez gainera, gazteen artean ezohikoa den lanbide batean aritzen da. Bera Fran da, Fran Hernandorena eta gaur egun, Lurdesekin batera, Torrea Elkarteko sukaldaria.

Ez zaizkio grabaketak, elkarrizketak eta antzeko gauzak gustatzen baina Karrape Irratiko kolaboratzaile ere bada. Pixkat erregutu ostean, arratsalde batean berarekin gelditu eta hemen jarraian datorren elkarrizketa hau egin genion.


■ **Arratsaldeon Fran. 22 urte eta iada sukaldari moduan lanean. Zein ikasketak dituzu eginak eta non?**

Burlatako Hosteleria eskolan aritu nintzen. 5 urteko ikasketak dira eta ni zuzenean 3. mailan hasi nintzen. 3. eta 4. mailak osorik egin nituen eta 5.ean hasi banintzen ere, gero lanean hasi nintzenez utzi egin nituen.

■ **Zenbat urterekin hasi zinen eta zergatik?**

17 urterekin hasi nintzen. Eta zergatik? Txiki-txikitatik gustatu izan zait eta Argiñano tipulak txikitzen ikusten nuenean gero ni etxean hori egiten saiatzen nintzen.

■ **Jende gutxiri gustatzen zaio sukaldean aritzea, kuadrilakoak**



«Argiñano tipulak txikitzen ikusten nuenean gero ni etxean hori egiten saiatzen nintzen»

## aprobetxatzen al dira horretaz? Edo gustora egiten dituzu lagun ar-teko afariak?

Kuadrilako afariak egin izan ditugunean, gustatzen zait afaria egitea, ez zait axola eta gainera gustora egiten dut.

### ■ Leitzara etorri aurretik non aritu zinen lanean?

Lehendabizi praktikak egin nituen lekuan aritu nintzen lanean, Iruñean; asteartetan aritzen nintzen, klaseak konbali-datzen zizkidatelarik eta lan asko zegoe-nean asteburuetan ere aritzen nintzen. Gero «self-service» batean ibili nintzen eta ondoren Gaztelu Plazako taberna batean baita ere. Esan behar dut hiru urtetako San Ferminetan ere lanean ibili naizela. Gainera aipatu behar dut eskolan baino gehiago lanean ikasi ditudala gauza gehienak.

### ■ Esaidazu sukaldaritzaren alderik txarrena.

Asteburuetan lan egitea. Ni lanean na-goen bitartean lagunak juergan dabiltza.

### ■ Eta onena?

Gustoko dudan lanean ari naizela

### ■ Horretaz gain, badakigu Leitzako Karrape Irratian kolaboratzaile mo-duan aritzen zarela. Nolaz hasi zinen eta zer egiten duzu orain?

Irratiko esatariek aipatu zidaten ea prest egongo ote nintzen sukaldaritzaren inguruko saio bat egiteko eta hasieran ezetz erantzun banuen ere, azkene-an animatu egin ninduten. Gero, beste zerbait egitea pentsatu

genuen eta orain, ateratzen den edozer gauzetan laguntzen dut.

### ■ Sukalde batean pasa duzun momenturik txarrena. Pasadizoren bat.

Iruñean lehendabiziko San Ferminetan lanean ari nintzela, jende asko zegoen, lan asko eta momentu batean kamarara joan nintzen «fumet» baten bila (arraiez egindako salda). Betetako kuboahartu, irristatu egin nintzen eta dena gainera erori zitzaidan. Kirats handia botatzen du eta lanean dena bustita ibili nintzen aldatzeko denborarik ez nuelako, eta botatzen nuen usainarekin ondokoak nazka-nazka eginda bukatu zuten.

### ■ Beste jatetxe batera joaten zarenean asko erreparatzen al diozu janariari?

Bai eta batez ere presentzian jartzen dut arreta. Gainera zerbait asko gustatu baldin bazait edo kuriositate hutsez, eza-

gutzen ez dudan leku batean batez ere, nola egina dagoen galdetzen dut.

### ■ Janaria prestatzeko gustukoena duzuna eta jateko gustukoena.

Postreak, reposteria asko gustatzen zait. Jateko berriz, dena gustatzen zait baina bat esateko haragia esango nuke.

### ■ Inoiz jango ez zenukeen zerbait

Ez naiz barazkizalea, nere kabuz ez nuke jango baina etxean behartuta jan egin behar izaten dut.

### ■ Afari erromantiko baterako zein menu gomendatuko zenuke? (Harridura aurpegia jarri du, baina seguru behin baino gehiagotan egin dituela horrelakoak).

Lehendabizi eta hasteko, mahai gainean bi bela jarriko nituzke eta musika lasaia. Ondoren, lehenengo platerarako «bogavante» entsalada bat jarriko nuke eta gero parrilan egindako mariskoa: bai ostrak, zigala batzuk, «marinera» erara egindako almeja batzuk . . . Eta postrerako txokolatez egindako zerbait eta ondoren «cocktail» afrodisiakoren bat. Afarian zehar edateko berriz, ardo txuria edo txanpain ona.

Hauxe da ba arratsalde hartan egin genuen elkarrizketa. Esan behar da, irratian bezala, hemen ere zenbait erregu egin genizkiola hona etortzeko baina etorri bezain laister, lasaitu eta ixildu ere egin gabe hasi zen hizketan.

Gomendio batzuk ere eman dizkigu eta kasu egin nahi dionari ON EGIN !!!!

## «Eskolan baino gehiago lanean ikasi ditut gauza gehienak»



# HIZKUNTZAREKIN

# POSTAZEN

1	BAIONA
2	ERRENTERIA
3	PASAIA
4	TRINTXERPE
5	AZKARATE
6	MUGIRO
7	BARAIBAR
8	LATASA
9	GARZARON
10	SUNBILLA
11	ERRONKARI
12	NEVADA
13	LIMA
14	ANDOAIN

A	PASOTISMOAREN HERRIA
B	ERRONKAZALEEN HERRIA
D	BELDURTIEN HERRIA
E	ESKUZABALEN HIRIA
F	TURISTA EGUZKIZALE DESPISTATUEN HERRIA
G	ESKER ONEKOEN HIRIA
H	LATA EGILEEN HERRIA
I	IHES EGINDAKO PRESOEN HIRIA
J	BEHIEN HERRIA
K	TABERNAZALEEN HERRIA
L	GERLARIEN HERRIA
M	EDARI EXOTIKOEN HERRIA
N	HANKA MOTZEN HIRIA
O	HARRITUEN HERRIA

(an-doin)	14-E
(lima)	13-I
(ene bada)	12-O

(erronkari)	11-B
(sun-billa)	10-F
(garzar-on)	9-M
(lata-s.a.)	8-H

(bar-ai-bar)	7-H
(mu-ero)	6-J
(azkar-ate)	5-O

(trintxer-pe)	4-H
(pasa-ia)	3-B
(erren-ter-ia)	2-U
(bat-ona)	1-G



**MUSUNZAR**  
**OSTATUA**  
**JATETXEA**  
Elbarren kalea, 14  
Tel.: 948 51 06 07 - 948 51 04 75  
LEITZA (Nafarroa)

HERRIKO TABERNA  
**Torraa**  
Euskal presoak etxera!  
Tel.: 948 61 09 09



**Gaztañaga**  
TABERNA  
Otar-tekoak, pintxo beroak,  
kaxuelak  
Tel.: 948 61 07 08

**ADUR**  
• Otartekoa ogi beroarekin  
• Kaxuelak  
• Era askotako pintxoak  
Elbarren, 16 - Leitza  
Tel.: 948 61 08 64

-Olagarroa - Grabak  
-Ziztorra sagardotan

Herrian zure berri izateko modu onena duzu  
Marmari aldizkaria, gainera merke-merke.  
Aldizkari honetan iragarkia jarri  
nahi izanez gero jarri gurekin harremanetan  
948 51 08 14 telefonora deituta.

**Arakindegia**  
Jatetxea  
Tel.: 948 51 00 52

**Jose Ignacio Arzallus**  
Harategia - Urdaitegia  
**Etxeoko txistorra**  
Tel.: 948 51 03 77 - LEITZA  
Tel.: 948 68 30 42 - BERAŠTEGI

**Okindegia - Gozotegia**  
**EGYZKITZA**  
Erreka, 3 behea - Tel.: 948 51 06 14 - LEITZA  
Elbarren, 35 - Tel.: 948 61 06 46 - LEITZA  
San Frantzisko, 24 - Tel.: 943 65 00 41

**HARRATEGIA-URDAITEGIA**  
**URKIOLA**  
Idi haragitan eta hemengo Zekorretan espezialitatea  
Tel.: 948 51 04 67 - LEITZA



Ohikoa bihurtu zaigun atal honetan, berriro ere buruari buelta emateko lana aurreratu dizuegu. Batzuk erraz asmatuko dituzue baina hor atxauretuta azaltzen den «aingerutxo» hori nor ote da? Eta eskuak gurutzatuta azaltzen den neska gazte hori? Oraindik ere gazteak diren arren, denborak nola aldatzen gaituen, ezta? Burua astindu ondoren, azkar asko ezagutuko dituzue? Hasi ba, burua astintzen!!


# Ezetz asmatu

## Pertson izkutua

Nor den lehenengoan asmatu al duzu? Ezetz?! Jakingo bazenu nor den...Leitzar gazte guztien eta ez hain gazteen artean ezaguna, parrandazalea eta saltsa guztietako perraxila. Hau tartean baldin badago gaupasa seguru. Oraingoan asmatzen ez baduzue...



# Musika eta parranda Leitzan



**D**enok dakigu leitzarrak parrandazaleak garela eta Leitzak horretarako aukera ederra ematen digu. Hala eta guztiz ere, urteen buruan gauzak asko aldatu al dira Leitzan? Zer pentsatzen duzue honen guztiaren inguruan?

Hauxe da ba, mahai-inguru honetan jorratu dugun gaia. Erne begiak!

## Aldatu ote da juerga egiteko estiloa Leitzan urteekin?

- Kaleko giroa lehen gehiago zen eta orain berriz tabernakoa gehiago da. Gure denboran txaranga izaten zen edo tabernatan ibiltzea, baina kanpoan.
- Baina hori festetan.
- Ez, ez eta bestela ere bai.
- Urtean zehar baita ere?
- Bai, bai. Tragoarekin kanpoan egoten ginen gehiago eta orain dena taberna zuloan da.

■ Gu parrandan hasi ginetik nik uste beti tabernan sartuta egondu garela, nik behintzat hala daukat gogoan; eguraldi ona bazegoen orduan bai kanpoan baina bestela taberna zuloan sartuak beti.

■ Umetan adibidez plaza zen ... igandetan, korrika hasten ginen denak inguruxoa dantzatzen, plaza giro hori bazegoen eta orain ez dago. Egia esan hori oso umetan gertatzen zen.

■ Festetan eta ihauterietan bai baina horretaz gain.

■ Ez, ez eta igandetan baita ere. Txistulari giro hori bazegoen eta orain ez dago.

■ Ni ere dantzan hori hasi nintzen karra-pen.

■ Eta ez da izanen txistularik utzi duelako eh!

■ Nik uste asko aldatu dela; tabernatan musika orain hobeki entzuten da, altuago, jendeak hori nahi du. Musika horrekin parranda egitea ohitu gara eta horregatik

kanpoan ez gara hainbeste egoten. Egia da baita ere txaranga kanpoan dagoenean ez diola hainbeste jendeak segitzen; txistulariak daudenean ere, sentitzen dut beraiengatik, baina ez dio inork segitzen.

■ Batzuk bai baina 30 urtetik gorako jendeak.

■ Ez baina orain azken boladan jendea hasi da.

■ Txarangan behintzat igo egin da, urte pare bat edo hiru izan zituen nahiko ahluk eta orain berriz...

■ Gu parrandan 15 urte ingururekin hasi izan ginen eta nik ez dut uste hainbeste aldatu denik azkeneko 11 urtetan.

■ Ez, ez, niri ez zait iruditzen hainbeste aldatu denik.

■ Aldatu dena musika da.

■ Baina parranda egiteko modua...

■ Festak eta ihauterietan bai eh? Lehen kaleko parranda zen eta orain tabernakoa da.



■ Baina zuk uste duzu festetan ez dela jendea kalean egoten?

■ Gutxiago, askoz ere gutxiago.

■ Guk egia esan txarangarekin ez dugu hainbeste kontaktu izan, ez gara txarangarekin ibili, ez dugu ohitura edo gogoia izan.

■ Baina nik uste hori aldatu dela toki guztietan, orain parrandak kanpoan oso gutxi egiten dira.

■ Bai, beste parranda modu bat da.

**Kontsumoari dagokionez, ohiturak aldatu al dira?**

■ Orain mundu guztia tabernetan egoten da eta tabernak Leitzan ez baina beste leku batzutan isten dituztenean, jendea diskoteketara joaten da.

■ Eta dantzatu ere nik uste lehen baino gutxiago egiten dela.

■ Dantzatu tabernetan? Bai, dantzatzen da, baina goizeko bostetatik aurrera.

■ Nik horretarako nere teoria daukat, jartzen duten musika ez dela dantzatzeko eta gero, jende guztia barrura sartzen denez ez daukazu lekurik.

■ Baina nik ez dut uste musika estiloarengatik denik.

■ Baina saltsa jartzen badizute uste duzue jende gehiagok dantzatzeko lukeela?

■ Bai, nik uste baietz.

■ Edo fandango bat jartzen baldin badute?

■ Fandango ez baina.

■ Lehen rantxerak jartzen zituztenean oroitzen naiz... eta lekua ez dakit nondik ateratzen zen hor dantzatzeko.

■ Nik uste lehen gehiago dantzatzen zela zeren musika desberdinagoa jartzen zuten, estilo desberdinagoa.

■ Baina tarteka niri adibidez gustatzen zait baina erabat, erabat, erabat...

■ Hori komentatzen da kanpoan, asteburuetan taberna batera joan bakailoa, bestera joan bakailoa, hurrengora joan eta bakailoa eta pasatzen dira kotxeak eta hor ere bakailoa jartzen dute. Nik uste lo eta dena bakailoarekin egiten dutela. Niri hori ez zait normala iruditzen, nik uste hori bakarrik ez zaiela gustatzen edo agian bai. Niri musika estilo asko gustatzen zaizkit eta ez dut estilo bat bakarrik entzuten.

■ Badakizue zer gertatzen den? Ba Lei-



tzan badaude bi taberna edo hiru larunbatetan bakailoa jartzen dutenak baina horiek dira beteenak daudenak eta gu ere sartzen gara. Ni nere partetik ez nintzake sartuko.


■ Baina hori da. Ez zaizu gustatzen baina azkenean beste aukerarik ez dagoelako sartu egiten gara. Orduan berdin berdin betetzen dira tabernak.

■ Baina ez zaizue iruditzen adibidez, taberna horietan saiaturiko balitz gehixeago beste musika bat jartzen (euskal musika izan daiteke edo beste leku batekoa) baina musika martxosoa bakailoa ez dena, jendea galduko lukeela taberna horrek?

■ Ezta pentsatu ere.

■ Gehiengo ez da bakailo zalea.

■ Nere ustez tristeena da ez dutela inolako ahaleginik egiten musika aldetik zer-bait aberatsagoa eskaintzeko.



■ Baina beharrik ere ez dute sentitzen.

■ Tabernarien gustoa dago hor. Nik badaikit gainera atzo entzundako musika gaur ez dudala entzungo, ze nere ustez aste tarterako musika dago, asteburueterako...

■ Eta euskal musikarekin zer gertatzen da? Niri bai iruditzen zaidala tristeza, Leitzan juerga batera irten eta Guadalajara edo beste edozein herritan banengo bezala sentitzea.

■ Horrek badauka esplikazio bat. Ba telebista eta irratitik sartzen digutela ba Estatu Batuetatik edo Estatu Espainiarretik datorren musika.

■ Baina hemengo tabernarietarako badakite euskal musika badela. Batek nahi izanez gero, bat pixkat ahalegintzen baldin bada bilatu dezake euskal musika martxosoa larunbat gauerako orain dela sei eta zortzi urte jartzen zen bezala jartzeko, baina ez da jartzen eta niri hori Leitza batean tristeza iruditzen zait.

■ Tabernarien akatsa da baina baita jendearena ere. Jendeak hori onartzen du, jendeari hori gustatu egiten zaio.

■ Baina guri ere eta beste askori, gustatuko litzaiguke euskal musika jartzea

**Zuek uste duzue jendeari musikaren kalitatea axola zaiola?**

■ Batzuei bai.

■ Baina gehiengoari ez. Ikusten da: Tamarak atera zuen abesti hura jarri eta jende guztia saltoka hasten da. Eta hori gauza guztiekin pasatzen da.

■ Baina mundu guztiak zekien abesti hori txarra zela, gaizki abesten du baina hainbeste sartzen dizute, telebistan ateratzen da... Jende askok saltzen dizutena hartzen du.

■ Hori bera gertatzen da musika, irakurtzen dena, prentsa, telebistan zer ikusten den....

■ Eta zer den ona eta zer ez bilatzeko, azkenean zuk hartzen duzun aukera muturraren aurrean jartzen dizutena da.

**Leitzako juerga giroak hartu duen ospea, lehen ba ote zuen horrelako ospea Leitzako juergak edo azken aldikoa ote da?**

■ Nik horri esplikazio bakarra bilatzen diot eta da tabernak ez direla isten.

■ Ordutegia, bai.

■ Edozein moduz lehen ere bazuen ospea eta jendeak beti aipatzen du eta harrituta gelditzen da urte dextentetan etorri ez dena; garai baten ospea zuen eta berak bazekien giroa nolakoa zen. Orain ospea du, berriz etorri eta denak harrituta gelditzen dira nola eta zenbat aldatu den ikusita.

■ Baina musika aldatu da ez? Aldatu ez dena da giro ona eta bazileoa eta dantzatzea... niri iruditzen zait beste leku batzuetan baino gehiago dagoela.

■ Niretzat jendea hona etortzea ordutegiaren gaiarengatik da. Gero giroa aldatu dela? Urte askotan etorri ez denak ez du ikusi zer nolako eboluzioa egon den. Zuk parranda egin nahi baduzu, beste leku batera joan eta tabernak goizeko lauetan isten dizkizute eta zu orduan gustora zaudela, ez dizu gogorik ematen etxera joatea eta askoz gutxiago kotxea hartzea. Hona etortzen baldin bazara ez daukazu hori egin beharrik, goizeko seiretan taberna batzuk itxi eta beste batzuk irekitzen dituzte ondoren eta parrandan jarraitu dezakezu.

■ Fama horregatik, inguruko lekuetatik etortzen dira eta hori azkar zabaltzen da. Kuadrilan elkartu eta: zer egin behar du gaur? Beste lekuetan ez badituzte tabernak irekitzen norabait joan behar dute eta nora, ba Leitzara, gainera ez baitago puntu txarrean.

**Adibidez Iruñean horretarako badago eta askoz aukera handiagoa dago denetarako.**


■ Bai, baina Iruñeak leku konkretu batean bukatzera behartzen zaitu, disco-pub horietako batean bukatzera.

■ Baina larunbatero hemen ez dago horrelako juergarik, egun konkretu batzuetan gertatzen dena da hori.

■ Baina larunbatetan kanpotik jendea etortzen da eta nahikoa da kuadrila batek afaria izatea, Leitzan izugarritzko juerga egoteko (pixka bat esajeratuz).

■ Nik uste askotan lasaixeago egoteko ateratzen garela, jendearekin erlaizonatze eta kasu horietan ez diogu musikari begiratzen.

■ Larunbat batean ezin duzu hitz egin eta ezta elkarrizketan egon ere, baina ostira-



letan hori nabaritzen da, jendea hitz egiten ikusten duzu.

■ Baina juerga egunak ez dira komunikatzeko egunak; alde batetik jendea mugituta dago eta hor komunikazio gutxi eta bestetik tabernetan ez da ezer entzuten, ezin naiz elkarrizketetan sartu.

■ Baina bolumenarena konturatu gabe ere egiten da eh? Taberna barruan lanean ari bazara askotan, musika baxu dagoela iruditzen zaizu, jendea hizketan dago builaka eta baxu dagoelaren sentsazioa izaten duzu, eta nahigabe beti igo egiten duzu bolumena.

**Zerbait egin al daiteke Leitzako juerga giroa hobetzeko edo aldatzeko, edo zergatik egin behar da edo merezi al du?**

■ Nik uste giroa ez dela aldatu beharrik,

aldatu behar dena musika da. Musika aukera zabaldu behar dela iruditzen zait.

■ Jendea nahiko konformista da musikarekin, «gaur egun hori jartzen da eta nahiko». Ahalegina egingo balitz nik uste eskertu ere eskertuko litzatekeela edo batzuk gutxienez bai baina ez dago horretarako gogorik. Jendea konformatu egiten da baina saiatuko balitz nik gutxienez eskertu egiten dut.

■ Baina festak edo juerga handiren bat iristen denean ahalegin hori pikutara joaten da. Musika aukera handia dago baina parranda egunetan musika hori konprimatu egiten da.

■ Nik uste lehen horretarako kapritxo gehiago izaten zela. Jendea lehen barra barrura sartzen zen musika jartzera eta lanean ongi pasatzen zuten eta tabernako jendeak baita ere.

■ Horrek ere dedikazioa eskatzen du. Leku askotan bat barran lanean ari den bezala beste bat musika jartzen egoten da.

■ Gainera orain dela 10 urte jartzen ziren abesti politak edo martxosoak oraindik hor daude eta jar daitezke. Suposatzen da ordutik hona abesti asko daudela baina nik ez dakit, ez dut ulertzen.

■ Hemen bizi den batek gutxienez sentsibilitate pixka bat eduki behar luke inguruarekin, hurbilekoarekin. Hemen ere badaude taldeak eta sentsibilitate puntu bat eduki behar litzateke beraiekin.

**Zer gertatzen da euskal musikarekin, euskarazkoa eta Euskal Herriaren egindakoa? Desagertu al da?**

■ Nik uste, ez dut esan nahi horrela behar duenik, baina euskal musikarekin bakarrik juerga bat aisa bete daiteke eta musika onarekin gainera.

■ Baina zenbat jende dago bertako musika ezagutzen ez duena eta kanpokoa bai? Eta bertakoa, hemen dagoena hori da baina ez du ezagutzen.

■ Orain hainbesteko uniformizazioa dago gauza guztiekin eta musikan baita ere, azkenean ezer esaten ez duen musika bat sartzen baitizute eta sentitu ere ez duzu egiten.

■ Baina nik uste izugarritzko parranda egin dezakezula eta dantzatu nahiz eta musika ez ezagutu, sekulan entzun gabekoa izanda ere.







■ Gustua erritmora joan da, salto batzuk egin eta kitto. Ni gogoratzen naiz lehen punteo batekin jendeak flipatu egiten zuela eta orain bakailo zati batekin nik ez dakit hainbeste flipatu daitekeen.

■ Niri punteoak betidanik asko gustatu zaizkit eta bakailoarekin ni bakarrik eta kotxean sartuta asko asko gustatzen zait eta neretzat hori da, batek punteoekin flipatu egiten du eta neretzat bakailoa azkenean gauza bera da. Eta niri zera gertatzen zait: entzuten dut bakailoa eta gero entzuten dut Pablo Milanés edo Mikel Laboa eta berdin-berdin flipatzen dut. Pena da horretara bakarrik murritzeta baina niri bakailoak sentazio asko sortarazten dizkit eta gainera asko bizitzen dut. Pena da horretara bakarrik murritzeta eta rockarekin gertatuko balitz berdin, joan eta tabernatan hori bakarrik entzungo balitz ze nazka, edo salsa bakarrik edo

trikitixa bakarrik entzungo balitz; baina denetik jarriko balitz...

■ Iruñean hori egin dezakezu baina Leitzan ez, Iruñean mila taberna daukazu. Iruñean mila aukera daukazu eta Leitzan hori murritzeta egiten da.

■ Guk adibidez beste juerga mota bat eza-gutu dugu beste musika mota batekin baina nere zalantza da 16-17 urteko jendeak ba ote dakien beste juerga mota bat egin daitekeela. Nik uste oraingo belaunaldiak ez dakiela euskal musikarekin juerga egin daitekeenik.

■ Orduan guk transizio bat bizitu dugu. Rockaren garaian eskandalo bat izan zen taldekideen jazkeragatik, batek kresta zuelako... eta orain berriz beste muturreira iristen ari gara. Guk agian transizio bat bizitu dugu eta oraingoek ez daukate aukera hori, baina orain agian biziko dute bakailoa eta hemendik hamar urtera beste gauza bat biziko dute.

■ Nik ikusten dut plazan ere gauzak asko aldatu direla, euskal musika adibidez. Orain herri gehienetan, guztietan ez esateagatik, salsa eta merenge talde bat daukazu, edo mexikarrak edo Djak. Hori plazan eta ez da tabernatan bakarrik.

■ Orokorki euskal taldeen kontratazioa jeitsi egin da, lehenengo urtean iada hori ikusi zen.

■ Bukatzeko esan, tabernariei beste musikaren bat jartzeko eskatzen diezunean duela 20 urteko musika jartzen dizutela eta badirudi tarte horretan inork ez duela beste ezer egin.

Mahai-inguru honetan atera diren ideiak ugariak dira eta zuetako asko ados egonen zarete, beste batzuk aldiz, guztiz kontra. Garbi dagoena da beraz, jende ezberdina dagoela eta gustu ezberdinekin gainera. Horrela ba, gauzak zerbait aldatuko direlakoan mahai-inguru hau egin nahi izan dugu.

# Maxurrenea

## Historia oparoa, etorkizun zalantzatsua

**H**erriko etxeen izenak jakitea gure historiaren zatitxo bat eza-gutzea ere bada. Zoritxarrez gure Leitza honetan ere, horren herri euskalduna izanagatik ere, ohitura edo jakinduria horrenik apenas baden gazte jendearen artean. Katalintxonea, Arretxenea, Aspain, Miltxoa, Txurea...zenbategi ote dakizki? Lautatik hiruk ezetz jakin bost herriko etxe izen horietatik hiru? Lepoa paratu daiteke arrisku larri-rik gabe. Ba, bada orainsu arte beste horiek bezala arriskuan zen etxe-izen bat, orain urte askotarako bizirik, eta salbu dagoena. Zein ote da? MAXURRENEA.

Gainera azken boladako gertakariei esker esan daiteke lasai aski etxe-izenik ezagunena eta ospetsuena bihurtu digutela. Belaunaldi guztiek ezagutuko dute, eta ez dirudi denbora luzean arrazoirik izanen denik izen horretaz ahazteko. Bai to! Beraz, batetik kalte ikaragarria egin nahi diguten arren (lortuko duten ez jakinki), bestetik gure toponimia eta herriaren historia berreskuratzen laguntzen ari direla ere egia da.

Hain zuzen ere, horrexetara datoz honako lerro hauek guztiak: Maxurrenea etxearen historia hainbat aipamen labur egitera eta etxearen gainean, batez ere azken 50 urte honetan herriak bizi-tutako gorabeheren berri ematera. Bide-nabar hausnarketa zenbait ere ez dira falta.

### SORTZE BERETIK ETXE BOTERETSUA

Kontrakoa pentsa baliteke ere, ez zaigu orain berriro bihurtu sonatua Maxurre-

nea. Ez horixe! Izan ere, beti izan du, mendez mende, historia oparo eta aberatsa, eta gainera kultura eta letrei lotua maizenik. Hara bada.

Jaso dugun informazioaren arabera, XVI. mendean atzenerako bada etxe honen gaineko aitamenik, artxibo zaharretan eta. Gainera etxalderik handienetako eta aberatsenetakoa izan behar zuen gure arbasoen antzinako denbora haietan. Jabeen dagokienez, herriko zaharrek gogoan ederki duten bezalaxe belaunaldi soka luzean Saralegitarrak izandu omen ziren, azkeneko Jose Korreona, Jose Perurena Elolak, eskuratu, beretu zuen arte lehengo mendean erdialdean edo (1950) Saralegi haie-tako batengandik.

Etxe honek sorturiko errainuaz (askoz gehiago idatzi daiteke baina) kontu bat aitatu beharrean gara, izan ere, egun bizi dugun saltsan, hots, etxe-aren izaeraz eta etorkizunaz, argitasun handia eman baitiezaguke. Zaharrek esaten dutenez, historia errepikatu egi-ten da beti gainera, eta deus berririk ez omen da gertatzen. Bada, etxe aberatsa, boteretsua izaki, liburu franko izaten omen zen Maxurrenean lehengo mende horren atzenetan desagertu edo, ziren arte. Liburutegia balio handikoa izan behar zuen, inondik ere. Hara bada, liburutegia lehen eta liburutegi bihurtu-ko ote?

Itxura badu kontu horrek, ikusi bes-tela: Martin Zabaleta matematikari ospetsu leizarra, Maxurreneko semea zen (1729-1802). Liburu zaharretan ageri baita, planogile eta, gizon trebea

eta iaioa bazela Leitza haundian. Lan asko egin omen zuen gainera Maxurre-neko seme hark matematiketan, astrolo-gian, kulturen-eta, letretan alegia. Eta nonbait, etxeko liburutegia ere hornitu zuen poliki. Egun ere halaxe nahi luke! Liburutegia baligukete!

### MAXURRENEA SARRIO SORTU ZEN GARAIA: ONGINTZA ETXEA

Maxurrenea Jose Perurena Elola, Jose korreona, eta Victoria Larrat Tanco senar-emazteen esku gelditu zen lehen-go mendean (XX) eta hauek herriaren onerako utzi nahi izan zuten aitaturako etxea. Donazioa egin baitzioten Amaza-bal Patronatuari erabat musutruk (1975eko eskrituretan ageri denez) Honakoa izan zen gutxi-asko aipatu donazioa: Amazabalen zen 612 metro koadroko soroa, Maxurrenea etxea nes-ken egoitzarako ( 270 metrokoa, barre-nez barren), etxe ondoko 1400 m koa-droko lurra, eta baita beste soro bat ere beheko landan, 3700 metrokoa berau.

Horretaz ari garela esan behar da Eskola profesionala zabaltzearekin eta kultur zein hezkuntzan sortutako beha-rreri erantzuteko lokalak eta, behar zire-nez egin zela jabetza emate hori. Baina jabetza emate horrek bazuen berezitasu-nik, honako baldintza baitzuen, eskritu-retako klausulak ederki jasotzen duen bezalaxe. Hona: «*Las fincas donadas se destinarán al establecimiento en las*





*mismas de una residencia, internado o escuela-hogar para las alumnas de la Escuela Profesional Industrial de Leiza o cualquier otra obra benéfico-docente que la fundación Amazabal estime oportuno». Garbi dago, ez da hala?*

Amazabal Patronatua zer izandu zen? 1963an sortu eta 1967an legalizatuak elkarteak. Osatzen zuten erakunde eta taldeei dagokionez, hona hemen zerrendatxoak: Leitzako Udala, Leitzako Parrokia, Guraso Katolikoek Elkarteak, Sarrio (enpresa eta langileak) eta Nekazarien Ermandadea.

Patronatua sortu zutenean helburu zehatza eman zitzaion, eta hortaz izaera garbia zuen sorrera agerietan agerienez: Fundazio «benefiko-dozentea» osatzea, alegia, ongintza etxea hezkuntzari atxikia. Helbururik behinena Leizta eta honen inguru geografikoan eragina izatea honako arlo hauetan: erlijio-soa, kulturala, hezkuntzako, ekonomiko eta soziala, esan nahi baita, herri eta inguruaren garapen espiritual eta soziala bultzatzea, eta behar fisiko eta intelektualak asetzeko biztanleen bizi kalitatea eta maila igoaz.

1978an, zailtasun ekonomikoak tarteko, Patronatuak etxearen usufruktua edo erabilera diputazioaren esku utziko zuen Jose Perurena Elolak eta emazteak jarritako klausulari utsiz, zena zela ere (idatzi honen hasieran ageri dena). Horregatik, etxea Hezkuntza Departamentuaren esku gelditu zen, eta ikasle-

nesken erresidentzia edo barnetegitara-ko erabili zuten.

Etxearen martxa eta mantentzeari dagokionez, 1972ean, orduan abade zegoen Jose Manuel Lasarteren egina-halei esker, nonbait «*Hijas de la Caridad*» moja talde bat Leitzara ekarri eta urtebete geroago Maxurrenera igaro ziren 1998an haien lana bukatu zen arte: Hasiera batean ikasle asko izanagatik ere, baita 50 baino gehiago ere, denboraren poderioz ordutegi jarraitua eta garraio publikoak ezartzearekin matrikula gainbehera etorri eta gobernuak etxea ixtea erabaki zuen: Ondorioz hutsik geratu zen 1997an.

Hala, etxea Bigarren Hezkuntzako Institutuaren esku gelditu zen, lehen Profesionala izandua, eta institutuko atezaina arduratu da etxe horren zainketaz. Baina erabileraren gainean esan behar da hagitz eskasa izandu dela.

**Nabarmenezkoa da Udalak askotan eskatu izandu duela etxearen jabetza, azken urteetako martxa kaskarra ikusita, baina betiere, lehengo jabeek eman nahi izan zioten izaera eta borondateari atxikita**

### **MAXURRENEA IA-IA HUTSIK**

Nabarmenezkoa da Udalak askotan eskatu izandu duela etxearen jabetza, azken urteetako martxa kaskarra ikusita, baina betiere, lehengo jabeek eman nahi izan zioten izaera eta borondateari atxikita eta errespetatuta. Izanez ere, bueltatzeko (rebersioa) eskubidea ere badu udalak etxeari eman beharreko erabilera desegokia balitz ere, alegia, donazioko klausula aintzat hartu gabe erabiliz gero, Udalaren eskuetara pasatzeko beharra.

Horrela bada, 1999an Leitzako Udalak, herrian Kultur-Etxe baten beharra izugarri nabarmena zela ikusi ondoren, Nafarroako Gobernuari Maxurrenea etxearen zesioa eskatzea erabaki zuen aho batez (EH, EA, UPN). Izan ere, ekitaldi zerrenda amaiezina prestatzen baita kultura arloan herrian urtea joan eta urtea etorri, eta hala eta guztiz ere, lokalik gabe izaten gara. Beraz, Maxurrenea, kultura-etxe, liburutegi eta herri kirolen museo bihurtzeko proiektua garatu zuen. Proposamen honen oinarrian, arestian aitatu bezala, etxeari ematen zitzaion erabilpen eskasa kontuan hartu zen.

Geroztik, Udala herriko taldeei bere asmoen berri eman eta hauen ekarpenak eta babesak jasorik, Kultura Departamentuko arduradunekin bilerak egiten hasi zen. 2000an hainbat bilera egin ondoren, departamentu horretako sail desberdinetako arduradun nagusien oniritzia jaso

zen: «Patrimonio Histórico»tik, Ekintza Kulturaleko Zuzendaritzatik, eta Nafarroako Liburutegi Publikoen Sareko sektioetik. Horrela, azkenik, Kultura Departamentuko Zuzendari Nagusiak, J.R. Corpas jaunak, Leitzako Udalaren asmoen aldeko txostena igorri zuen Ogasun Departamentura. Behin Kultura Departamentutik baiezkoa jaso ondoren, Hezkuntzakoaren baietza behar zen aurrera jo ahal izateko. Asmo horrekin, 2000. urteko azaroan Hezkuntzako Zuzendaritza Nagusiarekin elkartu eta Maxurrenean hezkuntzarekin erlazioa izanen zukeen plangintza garatzeko asmoa zutela adierazi zuten, alegia, zenbait ikastaro eta, egiteko erabiltzeko asmoa zutela diputazioan, eta ezezkoa eman zioten udalaren eskaerari.

Udalak hori ikusita epe edo bolada batean zer erabilpen ematen zioten ikusteko bere horretan utzi zuen gaia, hori bai, plangintza hori garatu ezean, ordea, Leitzako Udalak 2002. urtean gaiari, berriz atzera, buru-belarri ekitekotan.

Eta zer da eta Hezkuntza Departamentuak garatu asmo zuen plana, horretan geratu! asmoan, alegia. Maxurrenean, bi ikastaro egiteko erabili zen 2001ean; asteburu batean etorri zen Iruñeko Nafarroako euskaltegiko talde bat, udan berriz, abuztuan, 30 ikaslek eta

irailean beste 15ek hamabostaldia egin zuten.

Hala, berriz eskera. Kultur Etxearen proiektua 2002ko dirulaguntzen deialdian aurkeztu ahal izateko, Maxurrenea etxearen zesioa nahitaezkoa zenez, beste behin ere, herriko etxe hau horretarako eskatu zen Leitzarako alde-aldeko kultura azpiegitura sortzeko asmoz.

Bestalde 2002an Udalak herriko etxeko lanak egin bitartean Maxurrenea erabiltzeko baimena eskatu zion Gobernuari. Erantzuna jakiteko Gobernura deitu eta honek Guardia Zibilarren kuartela egiteko uztea erabakia zuela jakin zuten udalak.

Gertaerek aho bete hartz, txunditurik utzi gaituzte. Bihotza irauli digute. Ezina nagusitu zaigu, gailendu. Nafarroako Gobernuak, Leitzako Udalak aho batez eskatutakoari eta urte hauetan guztietan egin dituen gestio guztiei barre egin die, baita leitzar orori ere, zesioa egin zutenei bezalaxe. Arazoak moldatu, bideratu beharrean, handitu egin nahi ditu gobernuak. Leitzan, Kultur Etxe batek baino erabilera eta justifikazio publiko handiagoa al du Guardia Zibilarren kuartelak? Bide militarri lehentasuna eman eta kulturari emana bizi den herri bati bizkarra eman. Batzuk beti teman.

## HERRIAN INOIZ EZ BEZALAKO MUGIMENDUA

Nafarroako Gobernuaren berri izan bezain laster kezkek eta izuak hartu zituen herritarrak, biztanleak. Horrelako erabaki bat ez baita txori-kaka. Hala behinik behin, berehala hasi zen herria bilerak egiten eta etxeari behar duen erabilpena eman dakion eskatzen.

Esan beharra dago sekulan izandu diren ekitaldirik jendetsuenak egin direla eta herritarren artean inoiz ez bezalako adostasuna dagoela gai honetan. Herritar xume oro, baita talde, elkarte eta erakunde ia guztiak ere, bat etorri dira etxearen aldarrikapenean eta kulturako etxea izan dadin exijitzean, alegia, berez dagokion erabilpena eman diezaiotela eskatzeko tenorean. Hildakoen borondatearen gainetik, herriaren nahien gainetik, demokraziaren arau eta zuzenbide guztien gainetik, gizalege orori egin dakioken purrustirik zakarrena eginda, alegia, denaren gainetik hartutako erabakia izandu da. Lotsa-emangarria, ikaragarria.

Leitzako taldeek, elkarteek eta Udalak hainbat protestaldi eta ekintza presatatu dituzte erabakiaren berri izan eta agudo demonio, astero-astero, bilera irekiak antolatuta. Hona hemen llibur-llabur zerrendaturik:







**Herritar xume oro,  
baita talde, elkarte eta  
erakunde ia guziak ere,  
bat etorri dira  
etxearen  
aldarrikapenean eta  
kulturako etxea izan  
dadin exijitzean**

- Martxoaren 9an prentsurrekoa egin zen.
- Martxoaren 23an manifestazio erraldoia, inoiz egin den handiena: 1000 lagun baino gehiago elkartu ziren bertan.
- Sinadura bilketa kultur etxearen alde: 1600 bat sinadura.
- Kultur astean giza katea eta ondoren Maxurreneko atarian txistorra jatea: 300 bat lagun.

Era berean, Udalak ere bere aldetik eta administrazioaren zati den aldetik helegitea, errekurritzea erabaki zuen otsailaren 15ean, eskura dituen bideak jorratzea adostu zuen. Beraz, arlo judizialean eman litezkeen pausoak ematen hasi da. Hona Udalak batzar hartan harituriko erabakiak:

- Etxearen donazioa egin zeneko baldintzetan etxea itzultzeko eskatzea, hots, errebertsioaren gainean eskubi-dea bai baitu, udalari eman diezaiotela, alegia hezkuntza garatzeko gaietarako. Hala, kultura gabeziak ase ahal izanen dira eta.
- Errekurtsoa aurkeztea.
- Abokatua kontratatzea eta eskura dauden bide judizialak lantzea.
- Oraindaino egin diren lanen berri ematea eta publikoki azaltzea

Horretaz gain, kultura kontseilariaren agerpena eskatu zen parlamentuan. Eta baita udalaren ordezkartza batek ere kultura batzordean agerraldia egin zuten parlamentuan berean eta erabakiaren ez zilegitasuna defendatu. Bien bitartean han kanpoan 30 bat lagun ere bildu ziren.

**ETXEAREN ETORKIZUNA:  
KUARTEL-ETXEA?**

Erabaki honek harridura izugarria eragin du herritarren artean eta min izugarria egin dio herriaren nortasunari berrari. Ulertzetik ez dago inola ere eta ezin-

tasunaren harra biztu besterik ez du egin. Boterea herriaren aurka erabiltzen denean herritarrek emandako boterea erabiliz are mingarriago izaten baita.

Etxea beti egondu izandu da nolabait kulturari-eta lotua, eta azken nagusiek eman, OPARITU, egin zuten, herriaren kultura eta heziketan behar eta premiak larriak zirelako. Haien borondatea, klausula ospetsu horretan argi eta garbi geratu zen bezala, hezkuntzari lotutako jardueretarako, eta alabait emakumeen formazioan laguntzeko. Benefiko dozentea zer da horien ustez? Zer dela eta haien borondatea lurperatu?

Gainera orduan hezkuntza eta kultura gaietarako utzi bazen, egun esan beharrean gaude orduan baino premia oraindik handiagoa dugula; kultura agenda beti ederki hornitua edukiagatik, lokalei dagokienez berriz, ez baitugu askotan nora joanik, non eginik. Ez al da tristeza bizi den herri bati, kultur arloan lan izugarria eta eredugarria egiten duen herri bati, bere adierazpideei eta kulturaren garapenari trabak jartzea eta horretarako den etxea ez uztea?

Duela 4 urte udaleko talde eta ordezkari guztiek argi adierazi zuten herriak behar asko zuela eta Maxurrenea etxea-

ri buruzko erabilpen txosten ederra egin zuten: liburutegi publikorako oso egokia eta baita museo etnografikoa (harria, egurra eta zura, kirola) egiteko ere. Bestalde, erakusketa, konferentzia eta bileretarako ere erabilgarri eta beharrezkotzat jo zen. Hala, diputazio-

ari eskatzea erabaki zen aho batez, gainera. Izan ere, 30 talde baino gehiago badira herriaren kulturari atxikiriko guzetan aritzen direnak: kultur astea, hitzaldiak, antzerkia, mahai-inguruak, ikastaroak, ...

Nafarroako gobernuak zenbait unitateetako arduradunek ere aldeko jarrera azaldu izan dute herriaren eskaeraren pisuzko arrazoen aurrean. Baina, halarik ere, ezetz. Zer dela eta? Eta *Laguna* Hezkuntza eta Kultura kontseilari jaunaren erantzuna? G. Zibilari emanda donante edo emaileen borondatea betetzen dela. Non comment...

Zergatik zigortu nahi gaituzte? Beren betebeharra egin beharrean, alegia, herriak dituen premiak ase ordez, dituen arazoak handitu? Ez ahaztu zertarako nahi duten etxea eta ez ahaztu, modu berean, zein den herritarren iritzia, irudia, sentipena hartzaileenganako zein Gobernuaren erabakiarekiko. Ez ahaztu herriak egin dituen protestaldiak eta aldarrikapenak. Ez ahaztu Udalak ere egindako gestio lanak. Ez ahaztu...

Ez ahaztu 99ko inkesta batean azaldu ziren emaitzak, estimaziorik eskas eta txarra zuten instituzioa zen kuartela eta funtzio onik gabekotzat jotzen zen. Zerikusirik ba ote horrek?

Herriaren nortasunak, izaerak, alegia, euskaldun izateak, ez ote du nolabaiteko lotura hartutako erabaki horretan? Gu geu garena izateak, geureari eutsi nahi izateak, geurez garena ez onartzeak ez ote dute izan beren eragina eta lotura?

# Toki kuttunak

Agian zer den hau galdetuko duzue. Ba gure ideia herriko pertsona desberdinak hartu eta beraiei galdera berbera egitea zen. Denei honako galdera hau egin diegu: Leitzako zein toki edo txoko duzu gustukoen eta zergatik?



Erantzunak berriz, jarraian datozen hauek izan dira:

## LUZE:

Gaztañagako terrazara. Ez dira asko izaten urtean zehar Leitzan terrazan gustora egoteko iluntzeak eta eguraldiak laguntzen duenean pozik egoten naiz bertan. Gainera, oraindik ez dago telebistarik atarian eta kontu-kontari aritu daiteke lagunekin.

## JOSE LUIS HUARTE:


Neretzako toki kuttunena Leitzan eta Leitzalarre inguruan egonen litzateke. Bertan dagoelako eta mendi zabala delako, denetako aukerak ematen ditu, mendi tontorrak, basoak, erreka-zuloak..., eta bat aukeratzekotan, han aurrean Enemalkor inguruan baso eta malkar artean benetako bakardadea sentitu daitekeelako.



## MAPI KANFLANKA:

Leitzan txoko asko daude gustuko ditudanak, bai herrian bertan eta baita herritik kanpo ere. Bat aipatzekotan, herritik kanpo dagoen txoko bat aipatuko dut.

Txoko hori Antenako bidean dago, Eguzkizko Muinora hartzeko bidean. Leku hori aspaldi ezagutu nuen eta bidetik ikusten den lekua da, baina hara iritsi arte ez zara konturatzen zein leku dotorea den. Bereziki udan gustatzen zait, eguzkia eta itzala baitago eta hamakak jartzeko zuhaitzak ere badaude. Oso leku lasaia da eta izugarrizko bistak daude. Oso gustura sentitzen naiz bertan. Hala ere esan, leku eder ugari daudela Leitzan.





**UNAI ZABALETA:**

Hara! Galdera ikaragarria da. Dударik gabe egoera bakoitzak bere lekua izan dezake, beraz bat aukeratzea oso zaila da. Dena den nerekin eta zuek guztiokin oso lotua dagoen leku bat aipatuko dizuet. Hain zuzen ere egun Karrape Irratia dagoen lokala, hau da, karrapean dagoen lehengo taberna.

Beraz, etorkizunean hemen jarraitzea ikaragarria litzake, zaila izan arren. Irratiko lankide, kolaboratzaile, lagun, entzule garen eta zaretenok hemen, 107'8 Fman elkartzen jarrai dezagun, mila esker denei. Etorri ikustera, oso txoko polita da!

**LEIRE KARRERA:**

Buru-hauste handia sortu didazu leku bat bakarrik aukeratu behar dela esatean baina bat esatearren Antenako kaxkoa aukeratuko nuke. Udako iluntze batean oso polita izaten da han etzan eta eguzkia nola izkututzen den ikustea. Gaua iristen denean gainera toki espeziala izaten da izarrei begira egoteko.

**MIKEL ILLAREGI:**

Toki bat bakarrik esatea, zaila bezain ezinezkoa gertatzen zait. Topikoa izan arren, noiz edota zertarako jakin behar lehenbizi. Leitzalarreko ia edozein toki pagoez gozatzeko. Erasoten, «kitarran bueltatik» gora erreka-putzuetan freskatzeko. Guratz-mendi gaina para je zabalak ikusteko. Alde zaharra, paseatzeko...

**ENERITZ ASTIBIA:**

Egindako galdera kontuan harturik, oso zaila suertatzen zait leku bakar bat aukeratzea baina bat esatekotan «Kaxeta» aukeratuko nuke. Orain sasiak eta oteak janda dagoen arren, duela urte batzuk oso leku atsegina eta lasaia zela iruditzen zait eta gustora joaten nintzen lasaitasun pixka baten bila.

**ARANTXA IPARRA:**

Egia esan oso zaila suertatzen zait txoko edo leku bakarra hautatzea, oso gustukoa baitut mendi inguruan ibiltzea. Oso maiz ematen ditut paseotxoak Kornietara edo Kortekobordara ere. Paraje hori oso ederra iduritzen zait ingurutik bihurguneak eginez jeisten den errekatxoak merezi duelako bertan sartzea. Aipatu txokoak ez badituzu ezagutzen gonbidatzen zaituztet, atera zaitetz etxetik. Nik gozaten dudan erdia gozaten baduzu, zoriontsu izango zara.



Ikus dezakegunez, Leitzan txoko kuttunak ugariak izan daitezke eta hemen batzuk bakarrik aipatu ditugun arren, beste txoko asko ere aipatu gabe geratu dira, ezinezkoa baita denak bi orritan azaltzea. Bakoitzak bere gustuko txokoa du bai lagunekin egoteko, bai bakarrik egoteko eta baita beste gauza askotarako ere. Norberak berea.

**L**eitzan betidanik izan da kirolerako afizio handia eta kirolari ezagun asko eta asko eman ditu gure herriak. Kirol arlo askotako puntako kirolariak irten dira gure herritik. Hala nola, aizkolariak, harri-jasotzaileak, esku-pilotariak, erremontistak, txirrindulariak, lasterkariak,...

Kirol mota asko eta asko praktikatzan dugu leitzarrek, bai talderen bateko kide gisara eta baita bakoitzak bere kasa ere. Pilota eskolan hainbat eta hainbat neska mutil entrenatzen dira astero-astero eta esan beharrik ez dago, Leitzako pilota eskolak eman dituen eta ematen ari den fruituak zein oparoak diren, bai pilotariak banaka eta bikoteka eta baita herri arteko txapelketan ere. Pixkanaka, pilotari hauek, hobereenen mailara iristen ari dira eta txapelak ere Leitzarako bidea zein den ikasten hasi dira.

Baina esku-pilota ez da leitzarrek praktikatzan duten pilota modalitate bakarra. Bada pilota erremintaz astintzen duenik ere. Erremontistak, gero eta maila hobean dabilta eta bada palistarik ere, nahiz eta Leitzan ez izan erremintekin jokatzekeo baliabide egokirik, kanpora irten beharra tokatzen zaie, baina zerbait nahi duenak...

Futbol edo/eta futbol aretoan ere adin guztietako neska-mutilek izaten dute astero-astero beraien entrenamendu



edo/eta partidua. Maila oso onean ibili ohi dira urte guztian zehar eta Nafarroako liga eta kopako puntaraino iristea lortzen dute urtea joan eta urtea etorri. Gero eta neska gehiagok praktikatzan du batez ere kirol hau eta beldur gutxi mutilei aurre egiteko ere.

Futbola eta pilotaz gain, bada beste kirolerako afiziorik ere eta asko dira egunero-egunero lasterketako bizikleta hartu eta kilometroak egiten dituztenak, egunen batean profesional izatera iritsi nahi duten gazteak.


Kirola praktikatzaz gain, jende asko dago Leitzan, beraien denbora librean, gaztetxoak prestatzen igarotzen duena eta azkenean, etorkizuneko kirolari handiak, neurri batean horiei esker irteten dira. Gazte hauen kirol plangintza antolatu eta zuzentzen hainbat eta hainbat leitzar aritzen dira. Askotan lan hau, ezkutuan geratzen da eta eskerrak eman beharra dago egiten duten lanagatik, nahiz eta gustukoa delako egiten duten, bere sakrifizioa eskatzen duen lana baita.

Herri-kirolerako afizioa ere bada Leitzan eta nahiz eta jende gutxik praktikatzen, izen handiko kirolariak ditugu herrian. Agian, herri-kirolak, kirol gogorrak be-

# KIROLA







zala ikusten ditugu, sakrifizio eta esfortzu handia eskatzen duten kirolak baitira, baina edozeinek praktika dezakeen kirolak dira, ikusi besterik ez dago, zenbat gaztek parte hartzen duten festa bezperako saioan eta aurtengo kultur astean Euskal selekzioaren alde eginiko saioan ere.

Kirola, gogorra edo arina izan daiteke, baina ezberdintasuna ez du kirol motak egiten, baizik eta kirolariak zein puntutara iritsi nahi duen, hau da, kirola jokoan edo jolas bezala hartu nahi duen. Kirol batean goi mailan egoteko, sakrifizio eta esfortzu handia egin beharko da, edozein delarik kirola.

Lehiaketetatik kanpo ere Leitzar askok eta askok praktikatu du kirola. Industriadan biltzen den taldetxoak, txirrindua hartu eta herria eta autobidea arteko errepidean bueltaka egunero ikusten ditugun lagunak, Mendibilek antolatutako mendiko irteeretan parte hartzen duten mendizaleak, Leizta eta inguruko herrikoen arteko lehiaketak antolatuz, eskole-tako futbol txapelketa eta plazako pilota txapelketan jarduten direnak,...

Gaur egun, leitzarrek, kirola praktikatzeko erosotasun handiagoak ditugu, azkenean, polikiroldegia ireki da. Ea gero eta jende gehiago animatzen den kirola praktikatzera, gaur egun dauden erosota-


**Jende asko dago  
Leitzan, beraien  
denbora librean,  
gaztetxoak prestatzen  
igarotzen duena eta  
azkenean,  
etorkizuneko kirolari  
handiak, neurri  
batean horiei esker  
irteten dira**



sunekin, ez dago aitzakiarik kirola praktikatu nahi ez duenarentzat.

Gazte eta ez gazteek kirola praktikatzeko jarraitu behar genuke eta gure herria ezagutzera eraman dugun puntako herri kirolari baten ospea merezimenduzkoa dela erakutsi eta baita gustukoa dugulako edo/eta osasuntsu mantentzeko praktikatzeko badugu ere.

Hemendik beraz, kirolari horiek zoriontzea besterik ez zaigu geratzen. Beraien kabuz ibiltzen direnak jarrai dezatela horrela eta arrakasta lortu duten horiek berriz, jarrai dezatela orain arte bezala Leitzari emandako poza eta garaipenak eskuratzen.





# Pobrezia

## eta aberastasunaren banaketaz

**m**armari Leitzako aldizkaria da, Leitzan egina, eta Leitzan arreta jarria duena. Horrela

izan behar duela uste dugu, baina tarteka gure zilborretik begirada altxa eta kanpora ere begiratu behar dugula pentsatu dugu. Mundutarrak ere bagarela erakutsi, eta bertako aldizkariari ere kanpoaren arnasa eman.

Oraingoan, gure eskutara iritsitako dokumentu bati bidea eman nahi diogu. Interresgarria iruditu zaigu oso, eta gehienok barruan eraman ohi dugun arra erakusten duena. Izan ere, aberats bizi gara, baina mundu honetan pobrezia eta desoreka nagusi direla badakigu. Horren testigantza eman dezaketen leitzarrak badira, han eta hemen ibiliak eta bertatik bertara ikusi dutenak. Dokumentu honetan zenbait datu emanen ditugu, errealitate horren frogagarri, eta mundu hau gidatzen dutenen lotsagarri. Bide batez, gure kontzientziei ere

astindu txiki bat eman nahi genieke, ongi bizi garen leitzarrok, munduaren alde pribilegiatuan bizi baikara, nahiz

eta hainbeste kexatzen garen.



Tira, diskurtsoak alde batera utzita, datuak ikus ditzagun, aski argigarriak dira eta:

200 pertsonen pilatu duten aberastasuna, munduko biztanleen erdiak duenaren adinakoa da. Munduko 225 pertsona aberatsenek, munduko populazioaren erdiak duenaren adinako aberastasuna dute. Deus berririk ez. Aberatsak, gero eta aberatsago; pobreak, gero eta pobreago.

Horrenbestez, munduko aberastasuna banatzea eskatu beharra dago. Ez dago onartzerik munduko populazioaren zati txiki bat, munduko biztanle gehien kontura horrela bititzea. Alegia, gehienen mixeritari esker gutxi batzuk gisa horretan aberastea. Kapitalismoak dakarren desoreka eta desberdintasuna errazago antzemateko, Nazio Batuen erakundeak egindako «Giza Garapenaren gaineko Txostena»tik zenbait datu atera ditugu.



# Giza Garapenaren gaineko Txostena

**1.** Munduko 225 pertsona aberatsenen aberastasuna bilioi bat dolar baino handiagoa da. Hau da, munduko populazioaren % 47ak, zatirik pobreenak, duen dirusarrera bera. 225 pertsona aberatsenek, 2.500 pobreenak irabazten duten bera irabazten dute.

**2.** Hiru pertsona aberatsenen aktiboek, munduko 48 herrialde pobreenen Barne Produktu Gordina (PIB) gainditzen dute. 15 aberatsenen aktiboak, Saharatik behera dauden Afrikako herrialde guztien Barne Produktu Gordina baino handiagoak dira. Munduko 30 pertsona aberatsenen aberastasuna, Txinaren BPGa baino handiagoa da.

**3.** Munduko 225 pertsona aberatsenen aberastasun konbinatuaren % 4arekin, honakoa lortu liteke: munduko biztanle guztiek irakaskuntza publikoa jaso ahal izatea, oinarrizko osasun zerbitzua, emakume guztientzako osasun erreproduktiboa, elikagaiak denontzat, ura eta saneamendua denontzat.

**4.** Munduko 225 pertsona aberatsenetatik 147 herrialde industrializatueta bizi dira eta 78 berriz garapen bidean dauden herrialdeetan.

**5.** 1600 milioi pertsona duela 15 urte baino egoera okerragoan aurkitzen dira.

**6.** 1442 milioi pertsona ( populazio osoaren %25a) pobrezia mugaren azpitik bizi dira.

**7.** 3000 milioi pertsona (munduko populazioaren erdia) eguneko bi dolar baino gutxiagorekin bizi da. Horietatik 1300 milioi pertsonak eguneko dolar bat baino gutxiago dute bizitzeko (gehiengo pobrezia). 110 milioi Ameriketara, 970 milioi Asian eta 200 milioi Afrikan.

**8.** 1000 milioi analfabetoak dira, horietatik 600 milioi emakumeak direlarik.

**9.** 1000 milioi pertsona edateko urik gabe bizi dira.

**10.** 800 milioi pertsonak desnutrizio kronikoa dute.

**11.** Munduan 500 milioi emakume gehiengo pobrezian bizi dira.



**12.** 200 milioi haur, bost urtetik beherakoak, ongi elikatu gabe daude. Urtero 11 milioi haur desnutrizioarengatik hiltzen dira.

**13.** 89 herrialde duela 10 urte baino egoera ekonomiko okerragoan daude.

Datu hauek ikusi eta gero ez dago beste ezer esan beharrik. Hori bai, Nazio Batuen Erakundeak dionez, datozten 15 urtetan munduko nekazalguneetako behartsuen kopurua handitu egin daiteke. Beraz kontuak atara.

Honek guztiak jendea pentsatzera bultzatzen du, horrela izan behar behintzat, eta hortik bakoitzak bere ondorioak atara beharko ditu. Zerbait egin al daiteke? Zer egin daiteke?

Hori lortzea da zailena.

# BA AL ZENEKITEN...?

**L**eitza, Leitze, Leize, Leizea... ongi ote dago? Horrela ote da? Auskalo! Dakigun bakarra da, Leitza herri kozkorra izanik, leku eta etxeen izenak ere ugariak direla eta horietako asko nahiko bitxiak gainera. Leku gehienek beren istorioa dute eta horietako batzuk hemen aipatzeko modukoak direla iruditu zaigu.

Artikulu hau egin ahal izateko, *Nafarroako toponimia eta mapagintza* liburua erabili dugu. Liburu honetan datozen datuak lortzeko, Jose Migel Elozegi ibili zen ahozko galdeketa egiten eta horretaz gain esan behar da Patziku Perurenaren *Leitzako Errege Erreginak* liburutik zenbait istorio eta azalpen ere hartu direla liburu honetan bertan. Beraz, informazio hau guztia erabili dugu orain jarraian datoren zerrenda osatu ahal izateko.

## AIZPEKO BATZA:

Gazteen artean erabiltzen ez den Leitzako hilerriaren jatorrizko deitura da. Izendapen hau jende helduaren artean nahiko ohikoa da.

## ALTZU:

Gaur egun Sarrió enpresa kokatzen den lekuari zor zaio izen hau. Garai batean leku honetan bertan errekaaren putzu handiena kokatzen zen, ondoren desbideratu egin zutelarik.

## ANKAGORRIETAKO ERREKA:

Joanenko Bordaren ondoko errepidearen azpitik pasatzen da eta normalean agorturik egoten da. Diotenez, Konbentzioko gudatik ihesian zetozen soldadu frantsesek, oinetakoak hautsirik eta hankak odoleztaturik, erreka gorritz zikindu zuten eta hortik datorkio izen hori.

## ARESOARTEA:

Baserri honek, eraiki zen lekuaren izena hartu zuen. Zaharrek esaten dutenez, garai batean Leitza eta Aresok udalerrri bakarra osatzen zutenean, bi herrietako ordezkariak hor biltzen omen ziren bilera egiteko.

## ARRANOALDE:

Garai batean Asketa gainean arrano bel-

tzek kabia egiten zuten. Hortik etorriko zaio seguruaski lekuari izena.

## ARTZULO:

Hartzek negua igarotzen zuten zuloa. Duela 300 bat urte Leitzako azken hartza hemen hil zutela esaten dute.

## BAGORRINGOMEATZETA:

Izenak dioen bezala, meategi bat zen eta mineralak aurkitu zitezkeen. Oraindik ere meategi zaharretako meazuloen hondakinak ikus daitezke gainera.

## BATAN:

Leitzan kokaturik zegoen industriarik zaharrena zela diote. Erasote errekaaren ondoan kokaturik zegoen eta bertan «kapusaiek» egiten omen zituzten. Kapusai hauek artzaiek erabiltzen omen zituzten asko eta tunika luze bat izaten zen, txano eta maukarekin.

## ERROLANLEIZEA:

Denok ezagutzen dugu Errolan, pertsonaia historikoa, Karlomagnoekin batera

**Goiko artikuluan Leitzako hainbat toki izenen berri eman dizuegu, baina jakingo al zenukete argazki hauetan ikus ditzazkezen tokiak kokatzen? Ezagutzen al dituzue Leitzako txokoak?**





gudan ibili zena. Leize hau Aritz mendian kokatzen da eta sarrera, tamaina handiko arroka batek isten du. Esaten dutenez, arroka hau Errolanek habaila edo «honda» batekin bota zuen ondoko mendi batetik. Bere helburua Aralarko San Migel santutegira jaurtitzea zen, suntsitzeko asmoarekin baina saiakera horretan habaila hautsi eta kasualitatez leize honetako sarreran geratu zen.

### FRANTZESEN IARTZA:

Sarasainen aurkitzen den arroka tarteko pasaleku meharra da eta bertan erori ziren, beraien herrialdera ihesi zihozten zenbait soldadu frantses. 60. hamarkada arte, urtero beraien aldeko meza bat ospatzen zen herrian eta oraindik ere, gertaera hauek zenbait bertsotan entzun ditzakegu.

Zaharren ahotik entzun dezakegu nola gertatu ziren gauzak: dirudienez, soldadu frantsesak beraien herrialderako bidean galdu egin ziren eta alderdi honetan azaldu. Leku gaiztoa da hau, dena arkaitza eta malkarra eta irrist eginez gero, beheko

erreka ikutu arte ez dago gelditzerik. Badirudi jendeak bazekiela soldadu hauek zetozela eta baten batek ura bota zuen, eta izotza ari zuenez, hortik pasatzerakoan denak behearaino erori ziren.

### GANBARANBORDA:

Hemen jaio zen pertsonai ospetsua gero herrian bizitu zen. Ganbara deitzen zioten gizon honi eta larruzko txapela batekin agertzen zaigu bere irudia. Beti ganbarako lehiotik begira egoten zelako deitzen zioten horrela. Jakin-min eta errespetu handia sorrarazten zuen, izan ere Karlos VII. ren laguntzaile izan zen eta horrez gainera bala bat zuen gorputzean sarturik.

### IBIUR:

Bai Areson eta bai Leitzan izen bereko baserriak aurki ditzakegu. Izen honen jatorriaren inguruan bada istorio berezi bat: belaunaldiz belaunaldi esan izan da, Jesukristo eta San Pedro munduan barrena zebiltzela, gaueko ilargitan hemendik pasatzerakoan, bi errekek

nola elkartzen ziren ikusi omen zutela eta Jesukristok esan omen zion harriztuta San Pedrori: «Hara i, bi ur !!»

### IRUSO:

1718ko dokumentu batek dionenez leku horretan ikatza ateratzen zen garai batean. Esaten dutenez, leku honetan, mai-ruek utzitako urrez betetako kutxa bat omen dago lurperatuta. Altxor hau, eguzkiaren lehenengo izpiak ukitzen duen lekuko harriztar baten azpian egongo litzateke. Beraz, badakizue, hasi bilatzen!!

Hauek dira ba oraingoan sartu ditugun leku eta etxe izenak, hori bai, bakoitza bere isotorioarekin. Hau hasiera besterik ez da izan eta hurrengo aldizkarian gehiago sartu ahal izango ditugu. Batzuek ezagutuko zenituzten, beste batzuk zerbait entzuna izango zenuten eta beste batzuk berriz ez entzun eta ez ezagutu. Hau ere gure herria ezagutzeko beste modu bat dela pentsatzen genuen. Hurrena arte!!!



# Prentsa, aldizkariak, liburuak...

**A**rtikulu hau idatzi ahal izateko herriko liburutegi eta liburudendekin harremanetan jarri gara eta beraz alde zuzenetik eskerririk asko beraiei eman ditugun laguntzagatik.

Gure asmoa liburudenda eta liburutegiko datuak jaso ondoren emaitza batzuk eskuratu zen. Leitzan irakurzaletasuna bartzuen artean behintzat badagoela jakinik, irakurketa hori zein hizkuntzatan egiten den jakin nahi genuen, alegia, azken finean euskaraz zenbat irakurtzen den.

Jaso ditugun datu horiek, bi zatitan aipatuko ditugu. Lehenik liburudendetatik hasitako irakurzaletasuna neurtuko dugu eta ondoren berriz liburutegikoa.

Lehenik eta behin, eguneroko prentsa hartu dugu kontuan. Hemen aipatu beharra dago, denok dakigun bezala, euskarazko prentsa oso murrizta dela. Eguneroko prentsan egunkari bakarria dago euskaraz eta beraz, hemen garbi ikus dezakegu gehien irakurtzen den prentsa erdarazkoa dela.

«Egunkaria» da euskara hutsez argitaratzen den egunkari bakarria

eta Leitzan %5 inguruko salmenta duela esan dezakegu. Hala ere, esan behar da badaudela egunkari gutxi batzu euskarazko gehigarria dakartenak eta badirudi, gehigarri horren ondorioz egunkari hauen salmenta zer edo zer igo egiten dela.

Aldizkariak hartzen baditugu berriz, euskara hutsez argitaratzen direnak gutxi daude merkatuan, nahiz eta azkenaldian zenbait euskal aldizkari berri argitaratzen hasi diren. Beraz, euskarazko aldizkarien aukera txikia denez garbi dago hauen salmenta ere oso murrizta dela. Horrez gain, esan behar da gainera, aldizkari hauen irakurle den jendeak harpidetza egiten duela eta orokorrean, beti ez esatearren, etxera bidaltzen zaizkie aldizkariak. Honek, liburudendetako aldizkarien salmenta gutxiagotu egiten du eta hilabetean zehar bertan saltzen direnak %3 izango lirakeke gutxi gora behera.

Liburuen kasuan berriz argi dago euskarazko eskaintza dextentz zabalagoa dela. Gaur egun euskal idazleak asko direla esan dezakegu eta horietako gehienek euskaraz idazten dute gainera. Beraz, euskaraz irakurtzeko aukera nahiko handia da.

Liburudendetatik jaso dugunez, gehien egiten den irakurketa euskarazkoa da, irakurle gehienek euskaraz irakurtzen dutela ikus dezakegu salmentak kontuan hartu ondoren. Datuen bat ematerakoan, esan daiteke euskarazko liburuen salmenta %90 ingurukoa dela, beraz oraindik orain euskaraz gehiago irakurtzen dela esan dezakegu, Leitzan behintzat.

Honez aparte esan behar dugu, badaudela haurrei zuzenduriko zenbait produktu eta horien artean sartuko lirakeke ipuinak eta jostailuak. Hemen esan dezakegu, ipuinei dagokionean euskarazko salmenta dela gehien nabarmentzen dena eta hemen ere %90 inguru euskaraz saltzen da gutxi gora-behera.

Jostailuei dagokionean berriz, denok dakigu euskarazko jostailu gutxi eskuratu ditzazkegula, gehienbat Esta-

tu espainiarretik eta Ameriketatik etortzen diren produktuak izaten baitira. Hala ere, %65ean gailentzen da euskarazko produktuen salmenta. Datu adierazgarria beraz.

Azkenik, bideoak aipatuko ditugu. Euskaraz dauden pelikulak, beste hizkuntza batetik itzulitakoak dira gehienak (denak ez esatearren). Euskal jatorrikoak diren bideo gehienak umeei zuzendurikoak izaten dira normalean, horien artean pailazoanek, marrazki bizidunak... Bideo hauek umeen artean izugarriko arrakasta izan dute eta hori nabarmentzen da salmentetan ere. Salmentak ikusiz gero, %90 saltzen dira euskarazko bideoak eta lehen aipatu dugun bezala, gehien haurrei zuzendurikoak.

Hauxe izango litzateke beraz, euskarazko salmenten inguruan liburudendetatik jaso dugun informazioa, euskararen aldeko datuak gainera inondik ere.

Aurrekoa alde batera utziz, herriko liburutegira joan ginen Jose Luisekin hitz egitera eta berak, datu hauek eskeini zizkigun.

Aldizkarien aldetik, liburutegian euskaraz aurki ditzakegunak 17 inguru dira eta erdaraz daudenak berriz 34 inguru. Gehienak erdaraz baldin badaude ere, hemen azpimarratzekoa da euskarazko aukera nahiko handia dela.

Liburuak kontuan izanik berriz, aurtan 1785 liburu inguru sartu dira Leitzako liburutegian eta horietatik 488 euskaraz idatzitak daude eta gainontzeko 1293ak berriz erdaraz idatzitak.

Horien artean zatiketa bat egin daiteke. Alegia, Nafarroako Gobernutik bidali diren liburuetatik 235 euskarazkoak dira eta erdarazkoak berriz 1140. Batzbesteko bat eginez beraz, euskaraz idatzitak bidaltzen diren liburuak %17 inguru izango lirakeke.

Bestalde, Udala eta Nafarroako Gobernutik ematen den dirulaguntzarekin liburutegiak berak erositako liburuetatik 253 euskarazkoak lirakeke eta 153 berriz erdarazkoak. Beraz, liburutegiak erosten dituen euskarazko liburuak %62 inguru izango dira.

Datu hauek erreparatu ostean, ez dugu aitzakiarik euskaraz edo beste edozein hizkuntzatan irakurri ahal izateko. Leitzako liburutegian daukagun aukera ugaria da bai gazte, bai heldu eta baita haurrentzat ere.

Beraz, irakurri nahi duenak badu non aukeratu.





# LETRA ZOPA

Aurki itzazu taula honetan Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) kideak diren 12 herriren izenak. Hona hemen batzuk: Irura, Oresa, Dima . . .

K	O	R	E	X	A	U	K	P	R	A	O	S	K
A	X	B	I	J	L	S	A	E	K	E	I	S	O
N	O	G	O	I	Z	U	E	T	A	L	E	U	T
D	I	M	D	O	T	R	U	R	A	I	P	R	O
O	K	I	O	Z	U	B	T	A	K	U	U	B	I
I	M	A	I	N	B	I	L	B	Z	A	T	I	T
A	D	O	T	U	I	L	E	I	T	Z	A	L	I
M	O	R	K	E	T	A	B	U	S	U	N	A	E
A	N	E	A	R	U	R	I	G	A	S	O	R	K
R	O	J	E	K	A	O	T	D	Z	U	E	B	E
A	S	I	L	E	K	E	I	T	R	A	T	I	L
R	T	S	U	R	B	I	L	B	A	U	A	N	Z
T	A	A	N	O	B	E	R	M	E	O	K	O	S
A	B	E	R	M	S	O	R	E	X	K	L	I	M

**Taulan dauden herriak:**

Anoeta	Oresa
Lekaitio	Aramaio
Irura	Goizueteta
Leitza	Bermeo
Urdain	Arbizu
Usurbil	Dima


## EROSKOPOA



**ARIES:** ingurukoan umore txarrak zerea re ozpindu in du-la diruri. Kafe gozo-gozoa artzea beste aukeraik ez tozo! Bestela...



**TAURUS:** itxure beño ez al da zurea? Atzenaldiko jarrerakin batei beño geiori uts in diozo. Ba al dakizo zer nai zon e!?



**GEMINI:** ez tozo in nai eta parrremurririx xaloz baietz esaten zo...zu bai zu, gindaik gabeko paxtela.



**CANCER:** beitze utsekin ez gizen/k inoa! Noiz irao bear don/k ekintzara? Gero ez esan arrosa leortu zan/kela! nai dunak bilatu in bear!



**LEO:** tripeko minez zabiltzela? Zuk ematten dittozonak e ez die ba oso makalak e!



**UIRGO:** surre oker-oker inda dozo. Surre toki askotan sartu nai izateatik gertatzen da ori.



**LIBRA:** zeatik ez tozo baloratzeten bestek itten duena. Batezo ongi itten duena? Jeloskor????



**SCORPIUS:** gozo-gozo inda bukatu beazo orrenbeste goxoki jaten badittozo. Lasaitu!



**SAGITARIUS:** pillota, futbola, lasterka, pala... hamaika kirol itten dittozo beño adimena garatzeko kirolik itten al dozo?



**CAPRICORNIUS:** beti amaxon launtze izandu dozo eozin arazo konpontzeko. Bada garaie zuk zerorrek bakarrik konpontzen asteko.



**AQUARIUS:** dendariakin sesioan, maistrakin berdin, attea-makin e gauze onik ez. Noiz arte seittu beazo ola?



**PISCIS:** zure kirolik mattena jarrite eottea dela diozo. Bein grazie itten do beño bein da berriez orrekin etortzea...

### LIZARRAGA

**Harategia**

Tel.: 948 51 02 83

### BULDAIN

agentzia inbiliariaoa

Amazabal 37 (eskola ondoan)  
LEITZA (Nafarroa)

Tel.: 948 510534 / 649 47 66 15

### Gaztea zara. Ospa ezazu!

NAFARROAKO  KUTXA

### Esaiguzu nolakoa zaren eta zein pentsio komeni zaizun esango dizugu



# zer diozu?

# eta zuk,

## Ainara Zabaleta



- Salsa edo ingurutxoa? **Ingurutxoa**
- Plazan kotxeak aparkatzea debekatu behar al da? **Bai**
- San Ferminak edo Leitzako pestak? **Leitzako pestak**
- Egin dizuten azkeneko oparia? (30 segundo, minutu bat. Ez ote digu esan nahi?) **Ez dut gogoan.**
- Nola egiten dira kroketak? **Esnea, irina, urdaiazpikoa...(Ez dakit, ez dakit honek kroketa gehiegi egin duen!)**
- Gure planetatik kanpo, ba ote da izaki bizirik? **Bai**
- Zein da Leitzako mendirik altuena? **Eguzkizko Muñoa (Leitzar fina)**
- Zenbat denbora behar duzu egunero arropa aukeratzeko? **Ti-ta aukeratzen dut.**
- Nora eginen zenuke bidaiia, aukera izanez gero? **Kubara**
- Nahikoa futbola ematen al dute telebistan? **Gehiegi**
- Zein da leitzako aldizkari gazterik onena? (Ez do erantzun. Tira, hurrengorako jakinen du).
- Leitzako krosean emakumezkoen eta gizonezkoen sariak berdinak izan behar al dute? **Gizonezkoek buelta gehiago ematen dituzte-nez, saria ere halakoa.**
- Eta ibilbidea? **Bai**

## Julen Bergara

- Salsa edo ingurutxoa? (Algara batean). **Ingurutxoa**
- Plazan kotxeak aparkatzea debekatu behar al da? **Bai**
- San Ferminak edo Leitzako pestak? **Leitzako pestak**
- Egin dizuten azkeneko oparia? **Ez dut gogoan. (Ez dizkie asko egin izan!)**
- Nola egiten dira kroketak? **Esnea, irina, urdai azpikoa, perrexila...(Egiteko baino, jateko hobe zaude zu!)**
- Gure planetatik kanpo, ba ote da izaki bizirik? **Bai.**
- Zein da Leitzako mendirik altuena? **Eguzkizko Muñoa. (Honek ere badaki).**
- Zenbat denbora behar duzu egunero arropa aukeratzeko? **Zero**
- Nora eginen zenuke bidaiia, aukera izanez gero? **Egon pixka batean, Txinara.**
- Nahikoa futbola ematen al dute telebistan? **Bai, soberan**
- Zein da leitzako aldizkari gazterik onena? **Marmari. (Eskerrak honek badakin!)**
- Leitzako krosean emakumezkoen eta gizonezkoen sariak berdinak izan behar al dute? **Ez dakit, ni ez naiz ateratzen eta!**
- Eta ibilbidea? **Hori neskak erabaki beharko lukete.**

